

5. eta 6. GAIAK

- 1.- Zeintzuk dira maskara erabiltzearen abantailak?
- 2.- Ze gaixotasunetan erabiltzen dira farmako bronkio-zabaltzaileak?
- 3.- Zein da beta hartzaileen bizkortzailea?
 - a) Teofilina
 - b) Tiotropio
 - c) Salbutamol
 - d) Penizilina
- 4.- Zergatik ez da erabili behar salmeterol-a asma krisialdia tratatzeko?
- 5.- Zein da salbutamol-a edo terbutalina aho bidez ematearen arazoa?
- 6.- Zeintzuk dira antitusibo moduan erabiltzen diren morfikoak?
- 7.- Zein da mukolitikoa?
 - a) Ambroxola
 - b) Flutikasona
 - c) Teofilina
 - d) Salmeterola
- 8.- Nola hartuko dugu burdina anemia ferropenikoa tratatzeko: sulfato ferriko moduan ala sulfato ferroso moduan? Zergatik? Nola hartu behar da? Zein eragin desiragaitz sortzen ditu?
- 9.- Zeintzuk izan daitezke anemia makrozitikoaren kausak? Non aukitzen dira?
- 10.- Zein da antikoagulatzaileak erabiltzearen arriskua?
- 11.- Zein da heparina sodikoaren eta HBPM-en efektua blokeatzeko gai den substantzia?
- 12.- Zein da ahoko antikoagulatzaileen eragina antagonizatzen duen substantzia?

13.- Zer gomendatuko diogu ahoko antikoagulatuak hartu behar dituen gaixo bati?

14.- Zein da antifibrinolitiko?

- a) Azido azetil saliziliko
- b) Enoxaparina
- c) Alteplasa
- d) Azido tranexamiko

15.- Zeintzuk dira darbapoetinaren eragin desiragaitzak?